



Azalpen-memoria. Estatutuak aldatzeko proposamena.

2023ko apirila





Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartuta diseinatu da dokumentu hau, eta bereziki pentsatuta dago bitarteko digitalen bidez bistaratzeko.



Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen 2 zenbakiko mutua

Henao kalea, 26

48009 Bilbo

Telefona: 944252500

www.mutualia.eus

Informazio gehiago jaso nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan
helbide elektroniko honetan: dircom@mutualia.es

Aurkibidea:

1.-	Erreforma justifikatzen duten arrazoiak	4
2.-	Tituluen egiturako, zenbakitzeko eta izendapenetako aldaketak, Kapitulu eta artikulua	6
3.-	Proposatutako estatutu-aldaketak.	6
	24. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea osatzea eta berritzea.-	6
	28. artikulua.- Zuzendari kudeatzailea eta eginkizun exekutiboak dituzten langileak.-	9
	33. artikulua.- Kontrol eta Jarraipen Batzordea.-	12
	34. artikulua.- Prestazio Berezien Batzordea.-	15
	36. artikulua.- Lurralde batzordeak.-	20
	44. artikulua.- Nahitaezko horniketa eta erreserba.-	21
	47. artikulua.- Nahitaezko erreserba eta emaitzen konpentsazioa.-	22
	54. artikulua.- Eraitza ekonomikoa, erreserbak eta soberakina.-	23
	AZKEN XEDAPENA	23

1. Erreforma justifikatzen duten arrazoiak

Mutualia - Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen 2. mutuaren (aurrerantzean, Mutualia edo erakunde/mutualitate hau) Estatutuetan aldaketa hauek egitea proposatzen da:

1.- Zuzendaritza Batzordearen osaerari buruzko 24. artikulua aldatzea proposatzen da.

- 1.1 Zehazki, 1. apartatuko azken paragrafoa aldatzea proposatzen da, “presentzia **orekatu**” **zioen lekuan “ordezkaritza orekatu”** jar dezan, erabaki-organoetan emakumeen eta gizonen ordezkariak paritarioari buruzko Lege Organikoaren Aurreproiektuak erabilitako terminologiarekin bat etorri. Halaber, Mutualiak ildo horretan duen konpromisoa indartu egiten da eta, beraz, konpromiso hori bete dadin **bultzatu eta sustatzea jarri orde, ordezkariak orekatuaren printzipio hori betetzeko konpromisoa adierazten da espresuki.**

Hori guztia bat dator Konstituzioak eta Nazioarteko Zuzenbideak genero-berdintasunaren printzipioari ematen dioten babes eta aintzatespen nagusiarekin. Printzipio hori, halaber, 2030 Agendako garapen jasangarriko 5. helburuan gauzatzen da. Horrek, besteak beste, honako helburu hauek ditu: “Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra eta lidergo-aukerako berdintasuna bermatzea bizitza politiko, ekonomiko eta publikoan erabakiak hartzen dituzten maila guztietan”. (5.5).

Aldaketa hau, gainera, berariazko konpromiso bat da printzipio hori betetzeko, indarrean dagoen legerian aurreikusitakoarekin bat etorri (Emakumeen eta gizonen erabaki-organoetan ordezkariak paritarioa izateari buruzko Lege Organikoaren aurreproiektu berria ikusita, zeinak gainditu egiten baitu orain indarrean dagoena, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa), sektore publiko osoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua benetakoa eta eraginkorra dela bermatzeko, baita sektore horretako erabaki-organoetan ere, goi-organoetako eta zuzendaritza-organoetako titularren eta Estatuko sektore publiko instituzionaleko erakundeetako goi-zuzendaritzako langileen izendapenak barne, baita erantzukizun goreneko lanpostuak betetzen dituzten, goi-zuzendaritzako kontratuak dituzten edo Estatuko sektore publikoko kide anitzeko gobernu-organoetako kide diren pertsonen kasuan ere.

- 1.2 Era berean, 4. apartatuko lehen paragrafoa aldatzea proposatzen da, **zehaztasun handiagoz adierazteko Zuzendaritza Batzordeko karguetan jarduteko 70 urteak beteta dauzkaten pertsonak izendatu edo berrautatu ezin diren lanpostuak, zehazki, presidentearena, presidenteordearena, idazkariarena eta idazkariordearena** izango direla. Dena den, 70 urte bete ondoren ere kargu horiek betetzen jarraitu ahal izango dute, baldin eta adin hori bete baino lehen izendatu edo berrautatu badira. Hori guztia, puntu honetan batzordekideen karguetatik argi bereizteko.

- 2.- **28. artikulua 4. apartatua aldatzea** proposatzen da, zuzendari kudeatzaileari eta funtzio betearazleak dituzten langileei buruzkoa, emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatuaren printzipioa betetzeari buruzko aipamena egiteko, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoaren arabera, 24.1 artikulua aldatzeko proposamenari buruz azaldu den ildo beretik.

- 3.- **33. artikulua aldatzea** proposatzen da, Kontrol eta Segimendu Batzordeari buruzkoa, emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatuaren printzipioa betetzeari buruzko aipamena egiteko, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoaren arabera, 24.1 eta 28.4 artikulua aldatzeko proposamenei buruz azaldu den ildo beretik.

- 4.- **34. artikulua aldatzea** proposatzen da, Prestazio Berezien Batzordeari buruzkoa, zehaztasun handiagoz ezarri ahal izateko Batzordeko karguetan jarduteko 70 urteak beteta dauzkaten pertsonak izendatu edo berrautatu ezin diren lanpostuak, zehazki, presidentearena, presidenteordearena eta idazkariarena izango direla. Dena den, 70 urte bete ondoren ere kargu horiek betetzen jarraitu ahal izango dute, baldin eta adin hori bete baino lehen izendatu edo berrautatu badira. Hori guztia, puntu honetan batzordekideen karguetatik argi bereizteko.

Era berean, 34. artikulua hori aldatzea proposatzen da, emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa betetzeari buruzko aipamena egiteko, indarrean dagoen legerian aurreikusitakoarekin bat etorriz, aurreko artikulua aldatzeko proposamenei buruz azaldu den ildo beretik.

- 5.- **36. artikulua aldatzea** proposatzen da, Lurralde Batzordeei buruzkoa, zehaztasun handiagoz ezarri ahal izateko Lurralde Batzordeetako karguetan jarduteko 70 urteak beteta dauzkaten pertsonak izendatu edo berrautatu ezin diren lanpostuak, zehazki, presidentearena, presidenteordearena eta idazkariarena izango direla. Dena den, 70 urte bete ondoren ere kargu horiek betetzen jarraitu ahal izango dute, baldin eta adin hori bete baino lehen izendatu edo berrautatu badira. Hori guztia, puntu honetan batzordekideen karguetatik argi bereizteko.

Era berean, 36. artikulua hori aldatzea proposatzen da, Lurralde Batzordeen nahitaezko bileren aldizkakotasunari dagokionez. Hala, bilera-kopurua murrizten da, egungo formularen ordezkari beste formula bat proposatuz. Horren arabera, Lurralde Batzorde bakoitzak urtean behin egingo du ohiko bilera, nahiz eta, presidenteak proposatuta, beharrezkotzat jotzen diren ezohiko bileretara deitu ahal izango den.

Idazkariak dagokion Lurralde Batzordearen deialdiak sinatzeko bete behar kentzea ere proposatzen da (aurreko paragrafoan adierazten delako Lurralde Batzorde bakoitzeko lehendakariari egokituko zaiola mutuaren Zuzendaritza Batzordearekin zuzeneko elkarrizketa izatea eta bilerak deitzea). Horrez gain, aukerakotzat uzten da bileren aktak eta haietan hartutako erabakiak idatziz jasotzeko aukera, bileran bertan akta egitea erabakitzen denean bakarrik egin behar izan dezan idazkariak.

Azkenik, artikulua hau aldatu da emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa betetzeari buruzko aipamena jasotzeko, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorriz, aurreko artikulua aldatzeko proposamenari buruz azaldu den ildo beretik.

- 6.- **44. artikulua aldatzea** proposatzen da, nahitaezko hornidurari eta erreserbari buruzkoa, Kontingentzia Profesionalen Egonkortze Erreserbaren zenbatekoa zehazteko ehunekoak egokitzeko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 95. artikulua 2. paragrafoaren idazketa berriak ezartzen duenera, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 31/2022 Legeak 25.1 azken xedapenean egindako aldaketaren ondoren.

Halaber, 44. artikulua hori aldatzea proposatzen da, azken paragrafoa kentzeko, langile autonomoen jarduera-uzteari buruzkoa delako, eta gai hori behar bezala araututa dagoelako jada langile autonomoen jarduera-uzteari buruzko estatutu hauetako berariazko 54. artikuluen azken-aurreko paragrafoan.

- 7.- **47. artikulua aldatzea** proposatzen da, nahitaezko erreserbari eta emaitzen konpentsazioari buruzkoa, Kontingentzia Arrunten Egonkortze Erreserbaren zenbatekoa zehazteko ehunekoak egokitzeko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 95. artikuluen 2. paragrafoaren idazketa berriak ezartzen duenera, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 31/2022 Legearen 25.1 azken xedapenak egindako aldaketaren ondoren.
- 8.- **54. artikulua aldatzea** proposatzen da, emaitza ekonomikoari, erreserbei eta soberakinari buruzkoa, Jarduera Bukatzeagatiko Egonkortze Erreserbaren zenbatekoa zehazteko ehunekoak egokitzeko, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 95. artikuluen 2. paragrafoaren idazketa berriak ezartzen duenera, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 31/2022 Legearen 25.1 azken xedapenak egindako aldaketaren ondoren.
- 9.- **Azken xedapena aldatzea** proposatzen da, Estatutu berriak onesten diren datara egokitzeko, 2023ko proposatutako aldaketa honekin bat etorritz.

2. Aldaketak tituluen, kapituluen eta artikuluen egiturari, zenbakitzean eta izendapenetan

Proposatutako aldaketek ez dakarte aldaketarik artikuluen izendapenean edo zenbakitzean, ezta Estatutuetako titulu eta kapituluen izendapen edo egitura ere.

Proposatutako aldaketek aldatutako artikuluen edukia aldatzea besterik ez dute ekarriko, ondoren azaltzen denaren arabera.

3. Aldatzen diren artikuluen edukian proposatutako estatutu-aldaketak (testu-aldaketak/ezabatzeak letra **gorriz** markatzen dira):

24. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea osatzea eta berritzea.-

1. Zuzendaritza Batzordeko kideak honako hauek dira:
 - a) 10etik 20ra bitarteko enpresari kideak multzoa; horien % 30 langile gehien dituzten enpresetakoak izango dira, arauak jarraituz finkatzen diren tartearen arabera zehaztuta.
 - b) Atxikitako norbere konturako langile bat.
 - c) Zuzendaritza Batzordean parte hartzen duen erakundeko langileen ordezkaria.

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak izendatzean, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa **beteko** da, **indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera**, eta karguren bat **edo ordezkariaren** bat berritzea egokitzen den unean **beteko** da.

2. Enpresari kideen eta atxikitako norbere konturako langileen artean a) eta b) ataletako kideen izendapena ohiko Batzar Nagusiari dagokio, eta batzar horretan boto eskubidea duten parte-hartzaileen eta ordezkarien gehiengo soil bidez aukeratzen da. Hautagaitzak Zuzendaritza Batzordeak idatziko ditu, edo bestela gutxienez kideetako 50 enpresaburuk izenpetuko dituzte a) ataleko kideak izendatzeko eta beste hainbeste atxikitako langilek b) ataletako kideak izendatzeko. Zerrenda presidenteari aurkeztu beharko zaio batzarra egin gutxienez hamar egun lehenago. Ohiko Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeko kideak beren kargutik kendu ahal izango ditu hurrengo lerrokadan azaltzen diren arrazoiak medio, estatutu hauetan eta indarrean dagoen araudian zehazten zaizkien erantzukizunei kalterik egin gabe.

Hauek izango dira kargutik kentzeko arrazoiak: kapital elkarteetan kontseilari edo administratzaile kargua izateko ezintasuna edo debekua, eta Mutualitateetan aplikatzeko araudian ezarritako bateraezintasun eta debeku sistema hautsi izana.

3. Zuzendaritza Batzordeak, bere kideen artetik hautatuko ditu: presidentea; lehen, bigarren eta hirugarren presidenteordeak; idazkaria eta idazkariordea eta gainerakoak batzordekideak izango dira, honako eskumen hauekin:

3.1. Presidentearen ahalmenak.

- a) Mutualitatea eta bere gobernu organoak ordezkatzeko eta sinadura eramatea, bai epaiketetan, bai bestelakoetan; era berean, zeregin horietarako beharrezko botereak, baimenak eta eskuordetzak ditu, betiere aldez aurretik Zuzendaritza Batzordeak onartu baditu.
- b) Zuzendaritza Batzordearen, Batzorde Exekutiboaren, Kontrol eta Jarraipeneko Batzordearen eta, lehenengoaren izenean, Batzar Nagusiaren bilerak deitzea eta gidatzea, eztabaidetan saioen ordena eta garapen egokia zainduz moderatzaile lanak egitea, eta botazioetako berdinketak erabakitzea.
- c) Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen, Batzorde Exekutiboaren eta, egokia denean, Zuzendaritza Batzordearen barruan sortutako edozein Batzorde hartutako erabakiak betearaztea.
- d) Bereak dituen gainerako funtzioak betetzea, baita estatutu hauetan ezarritako gainerako guztia betetzea eta betearaztea ere.

Finkatuko den kalte-ordainen erregimenak arautuko ditu Zuzendaritza Batzordeko presidenteari berariaz dagozkion funtzioak; inolaz ere guztira ezingo dituzte gainditu Zuzendari Kudeatzailearen ordainsariak.

- 3.2. Presidenteordeenak: presidentearen ordezkari ariko dira, dagokien ordenan, kargua hutsik geratuz gero, presidentea falta izanez gero edota gaixotuko balitz; haren eskumen berberak izango dituzte. Era berean, presidenteordeek aurreko presidenteordeak ere ordeztu ahal izango dituzte (adibidez, hirugarrenak bigarrena). Presidenteordeak izan ezean, adinez zaharrena den batzordekidea jarriko da haren tokian, postu horretan gutxienez lau urteko antzintasuna badu.
- 3.3. Idazkariarenak: mutualitatearen ekitaldi guztietan egingo ditu idazkari lanak; Zuzendaritza Batzordearen deialdiak sinatuko ditu, saio guztietako aktak idatziko ditu eta beraietan jasotako erabakien fedea emango du, horretarako behar diren ziurtagiriak igorriko ditu presidentearen oniritziarekin, haiek artxibatzea zainduz.

Idazkariak dagokion eginkizuna hobeto gauzatzeko, "Akta idazkari baten" laguntza izan dezake; ez du Zuzendaritza Batzordeko kidea izan beharrik, eta Batzorde horrek izendatuko du.

- 3.4. Idazkariordearenak: idazkariaren ordezkari ariko da, presidenteordeak presidentea ordezkatzeko egoera berberetan; idazkariordeak ezean, batzordekide gazteenak hartuko du ardura hori.
- 3.5. Batzordekideenak: 3. presidenteordea eta idazkariordea ordezkatzeko dituzte haiek ez baleude, postua bete gabe balego edo gaixo baleude, Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duen moduan. Era berean, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako egiteko bereziak beteko dituzte, hartutako erabakiak betetzeari edo mutualitatearen funtzionamenduari dagokionez; hori guztia, mutualitatearen mendeko pertsonen ordezkari batzordekideari arauz dagozkion eskumenei kalterik eragin gabe.
4. Zuzendaritza Batzordeko kideak eta karguak lau urterako izendatzen dira eta karguak, nolahi ere, partzialki berrituko dira. Kide eta kargu guztiak aukera daitezke berriro, baina **presidentea, presidenteordeak, idazkaria eta idazkariordea** 70 urte baino gutxiago badituzte bakarrik; epe hori bete aurretik amaitu ere egin daiteke norberak eskatuz gero edota Ezohiko Batzar Nagusiaren berariazko erabakiz kideen kasuan, eta karguen kasuan Zuzendaritza Batzordeak hala erabakita, nahiz eta agintaldia amaitua izan ez. Mutualitatearen mendeko langileen ordezkaria berritzeari dagokionez, araubide espezifikoak diotenari egingo zaio jaramon.

Berritze bakoitzean kargua utzi beharko duten kideak zehazteko, izendapeneko edo azken aldiz berriz hautatu zuteneko antzintasun txanda jarraituko da. Berrautatuz gero, kideetako enpresak ziurtagiria aurkeztu beharko du, kide izateko berrautatzera aurkeztu izana, izena eta ordezkarietarako beharrezko gainerako datuak jasoko dituen.

Zuzendaritza Batzordeak euren agintaldia betetzeagatik arauz kargua utzi behar duten kideen izenak jakinaraziko dizkio Ohiko Batzar Nagusiari urtero, horiek berrautatzea edo ordezkatzeko proposatuz. Era berean, urtean zehar bertan izendatu dituzten kideak jakinaraziko dizkio, haiek berresteko eta, egokia baldin bada, izendatzeko.

Kargu izendatzeak Ohiko Batzar Nagusiaren ondorengo Zuzendaritza Batzordearen bileran egingo dira.

5. Izendapenak, Mutualitatearen mendeko langileen ordezkariarena izan ezik, horretarako ezarritako dokumentazioarekin lagundurik, aukeratu eta hamabost egun balioduneko epean jakinaraziko zaizkio eskumena duen ministerioari. Ministerio horrek baieztatu egingo ditu, edo eragozpenak azalduko ditu ezarritako lege eskakizunen bat betetzen ez bada.

Zuzendaritza Batzordea osatzeko izendatutako pertsona kezingo dute beren funtzioak betetzen hasi, harik eta eskumena duen ministerioak izendapen horiek baieztatu arte, aipatutako jakinarazpenean adierazitakoarekin bat. Ministerioak 15 eguneko epean eragozpenik ipiniko ez balu, izendapenak baieztatutzat joko dira, ekintza berriak direla-eta edo ondoren egindako egiaztapenengatik kargutik kentzeari kalterik egin gabe. Egoera horren berri Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkuraren aktan emango da.

6. Hala, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo ohiko Batzar Nagusiari proposatuko dio izendapenak berrestea edo, egokiago baderitzo, postuetakoren bat bete gabe uztea, betiere artikulua honetan aipatu den gutxieneko kopurua betetzen bada.
7. Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek beren kudeaketaren berri emango dute Batzar Nagusian.
8. Zuzendaritza Batzordeak legelari aholkulari bat izendatu ahal izango du, Batzordeko kide izan gabe, gobernu-organo horren eta bere kargu eta kideen aholkularitza juridiko eta tekniko-administratiborako. Legelari hori gobernu-organo horren bileretara bertaratu ahal izango da, boto-eskubiderik gabe, bere eginkizunak behar bezala betetzeko.

28. artikulua.- Zuzendari kudeatzailea eta eginkizun exekutiboak dituzten langileak.

1. Zuzendaritza Batzordeak, bere zaintzapean eta erantzukizunari kalterik egin gabe, zuzendari kudeatzailea izendatuko du, arrazoi profesional eta teknikoak aintzat hartuta. Hala, zuzendari kudeatzaileari emango dio, berariaz zein esku-ordez, betebeharretarako ezinbestekoak diren aldi baterako edo behin betiko eskumenak. Era berean, Zuzendaritza Batzordeak zuzendari kudeatzailearen ordainsaria eta lan-baldintzak zehaztuko ditu, mutualitatea katalogatuta dagoen sailkapen taldearen arabera, bai eta urteko helburuak ere, aginpidea duen Ministerioak horrekiko finkatutako araudiaren eta irizpideen arabera. Halaber, kargutik kendu ere egin ahal izango du, Batzordeak hala erabakiz gero; horretarako arrazoiaren artean daude Estatutu hauetako 24.2. artikuluan Zuzendaritza Batzordeko kideak kargutik kentzeko eta artikuluko bereko 4. puntuan karguak ez berriz hautatzeko aurreikusitakoak.

Zuzendaria edo zuzendari kudeatzailea abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuak araututako goi zuzendaritzako kontratuz lotuta dago, zeinak ezartzen baitu goi zuzendaritzako langileen izaera bereziko lan harremana, eta haien ordainsariak oinarritzakoak eta osagarriak izango direla, enpresa sektore publikoan nahiz beste erakunde batzuetan arduradun eta zuzendari gorenaren ordainsari-erregimenari buruzko 2012ko martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak talde bakoitzerako finkatutako gehieneko mugetara lotuta. Aintzat hartzen da orobat Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroak 2015eko urtarrilaren 2an Jakinarazitako Aginduan edo une bakoitzean aplikatzekoa den araudian mutualitateari dagokionez finkatuta dagoena.

Zuzendari kudeatzailearen izendapenaren eta haren lan kontratuaren eraginkortasuna aginpidea duen ministerioak berrestearren menpekoa izango denez, horretarako ezarritako dokumentazioa eskumena duen ministerioari jakinarazi behar zaio, hautatu eta hamabost egun balioduneko epean; ministerio horrek berretsiko ditu izendapenak, edo eragozpenak jarriko dizkie ezarritako legeko baldintzaren bat betetzen ez bada, eta ezin izango dute beren eginkizunak betetzen hasi izendapena berretsi arte. Ministerioak hamabost egun balioduneko epean inongo eragozpenik ipiniko ez balu, izendapena baieztatutzat joko da.

2. Zuzendari kudeatzaileak du mutualitatearen zuzendaritza exekutiboa, eta hari dagokio Erakundearen helburu orokorrak eta ohiko zuzendaritza garatzea, Zuzendaritza Batzordeak eta hango presidenteak, egokia denean, helaraziko dizkioten irizpide eta jarraibideei lotuta egoteari kalterik eragin gabe; Zuzendaritza Batzordeko presidenteari mutualitatearen kudeaketaren berri emango dio. Beste eskumen batzuen artean, honakoak izango ditu:
 - a) Mutualitatearen zentro, jardura eta zerbitzu guztiak antolatzea, administratzea eta zuzentzea, baita bertako langile guztiak ere.
 - b) Mutualitateari aplikatu beharreko araudia eta estatutuak betetzen direla zaintzea, erakundearen interesen alde egitea eta Batzar Nagusiaren nahiz Zuzendaritza Batzordearen erabakiak betearaztea.
 - c) Mutualitatearen zuzendaritza teknikoaren ardura du, bai eta, Zuzendaritza Batzordearen eskuordez, haren administrazio zuzendaritza eta ordezkaritza ere, horretarako izenpetze soziala gauzatuz.

Zuzendaritza Batzordea edota Batzorde Exekutiboa biltzea eskatzen ez duten kudeaketa ororen ohiko martxaren barruan, berak erabakiak hartzea eta sinatzea; era berean, presidentearekin ados jarriarik, atzera ezin daitezkeen neurriak hartzea, berorien presakotasuna dela eta, esandako Batzordeak biltzeko betarik ez dagoenean.

- d) Mutualitatean eginkizun exekutiboak dituzten langileak izendatu eta kargutik kentzea, haien goi zuzendaritzako kontratuak izenpetzea, Zuzendaritza Batzordearekin adostutako ordainsariak zehaztuz, eta edozein klase eta kategoriako gainerako langileak kontratatu eta onartzea, haien ordainsariak zehaztuz. Erakundeko langileak lanik eta soldatarik gabe utzi, zigortu edo lanetik bidaltzea.
- e) Kontu korronteak eta kreditu kontuak ireki, jarraitu, eskuratu eta ixtea, taloiak, txekak eta gainerako dokumentu beharrezkoak sinatuz. Kanbio letrak eta beste igorpen dokumentu batzuk ordaindu, igorri, deskontatu, helbideratu, onartu, endosatu, abalatu eta protestatzea, ordaindu behar diren zenbatekoen ordain aginduak baimentzea, era guztietako transferentziak, kobratzeak eta ordaintzeak agintzea. Saldoak finkatuz likidazioak egitea, eta mutualitateari dagozkion kopuru guztiak jasotzea, haien klasea, titulua, jatorria edo arrazoia edozein izanda ere.

Legezko fidantzen gordailuen eta beste edozein dokumentu motaren testigantza eskatzea; Espainiako Bankuan eta Gordailuen Kutxa Orokorrean fidantzak gordailutu eta erretiratzea. Espainiako Bankuarekin indarraldiko legeriak onartutako eragiketa guztiak egin ahal izango ditu.

- f) Berraseguruak kontratatzea, kontratu horien baldintzak era askean adostuz, nola zati-kuotan, hala galera gehiegi izatean eta finka daitekeen beste edozertan.
- g) Gizarte Segurantzako Kontabilitateko Plan Orokorren eta horrekin bat datozen gainerako xedapenen preskripzioen arabera kontabilitatea zuzentzea, Zuzendaritza Batzordeari aurrekontuen aurreproiektuak, balantzeak, memoriak eta urteroko kontuak idaztea, mutualitatearen nondik norakoa, funtzionamendua eta osaketa egoki eta zehatz azalduta.
- h) Dokumentuak aztertu eta prestatzea, eta Mutualitateko organo guztiek ezagutu eta erabaki behar dituzten gaien berri ematea.
- i) Mutualitatearen ordezkari izatea, gai, ekintza eta kontratu mota guztietan, haien izaera judiziala nahiz ez-judiziala edozein izanda ere. Ekintza judizialak era guztietako epaitegi eta auzitegien aurrean gauzatzea, mota guztietako auzibideko prozedurei hasiera emanez eta haiek jarraituz izapide nahiz instantzia ororen bitartez, inolako mugarik gabe, era guztietako helegiteei hasiera emanez eta prozeduraren edozein fasetan amore eman eta atzera eginez. Berak askatasunez aukeratutako auzitegietako letradunen eta prokuradoreen aldeko ahalmenak eman ditzake, auzietarako botere orokorreko ahalmenekin eta kasu bakoitzerako izendatzen diren bereziekin.

Era guztietako espedienteak gauzatu, hasi, jarraitu, atzera egin eta bukatzea Estatuko ministerio, zentro, ordezkaritza, bulego eta aginpide guztien aurrean, Gizarte Segurantzako kudeaketa erakundeetan, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean eta estatuko lurralde osoan, salbuespenik gabe, era guztietako organismo eta funtzionario publikoen aurrean; Erakundearen intereserako komenigarritzat jotzen diren akta guztiak egiteko notarioaren parte hartzea eskatzea. Batzorde bileretan ahotsa eta botoa izatea, bai gai judizialean, bai administraziokoetan edota beste edozein arrazoikoetan.

- j) Gaitasun horietako batzuk ordezkatzeko, erabateko askatasunez egokitzen jotako Erakundeko langileei ahalak emanaz.

3. Zuzendari kudeatzaileak, arrazoi profesional eta teknikoak soilik aintzat hartuta, mutualitatean haren mendeko funtzio exekutiboak izango dituzten pertsonak izendatu ahal izango ditu, 2015eko otsailaren 2an Jakinarazitako aginduan xedatuaren edo une bakoitzean aplikagarria den araudiaren arabera, eta langile horiek bere eginkizunen etan lagunduko diote. Haien eskumenak eta funtzioak zehaztuko ditu, eta, egokia denean, dagozkien ahalak ere bai. Zuzendari kudeatzaileak kargutik kendu ahal izango ditu, Zuzendaritza Batzordeko kideak eta Zuzendari kudeatzailea bera kargutik kentzeko eta ez hautatzeko adierazitako arrazoi berberengatik.

Zuzendaritza Batzordeak finkatuko ditu haren ordainsariak eta helburuak, mutualitateetan zuzendari kudeatzaileaz besteko funtzio exekutiboak dituzten langileei aplikatzeko den berariazko araudia aintzat hartuta, zuzendari kudeatzaileari aplikatu ahal zaizkion bateraezintasun, debeku, murrizketa eta erantzukizunen erregimenari lotuta, goi zuzendaritzako lan-kontratua hark emango badu ere.

Ministerio eskudunak berretsi egin beharko du betearazpen-eginkizunak betetzen dituzten langileen izendapenak, goi-zuzendaritzako kontratuak eta haien balizko aldaketak eraginkorrak direla.

4. Zuzendari kudeatzailea eta eginkizun exekutiboak dituzten langileak izendatzean, emakumeen eta gizonen **presentzia ordezkaritza** orekatuaren printzipioa **beteko** da, **indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera**.

33. artikulua.- Kontrol eta Jarraipen Batzordea

1. Mutualitatearen eta Gizarte Segurantzaren arteko lankidetzak nola kudeatzen den kontrolatzen eta jarraitzen duen parte-hartze erakunde instituzionala da, eragile sozialen artean osatua.
2. Eskumenak, osaketa eta funtzionamendua Lankidetzarako Erregelamenduan daude ezarrita, zehazki, GSLOko 89. artikuluan eta bat datozen gainerako garapen xedapenetan.

Kontrol eta Jarraipen Batzordeak hamabi kide izango ditu gehienez, ordezkaritza handieneko sindikatu eta enpresa arloko erakundeek eta langile autonomoen elkarte profesionaletako ordezkaritza batek izendatuak.

Erakundearen jarduera eremuan ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalen bidez mutualitateak babestutako langileen ordezkari kide hautatuen kopurua, Batzordeko presidentea kenduta, mutualitateko enpresaburu kideetuek osatzen duten ordezkari kopuru bera izango da. Enpresaburu horiek ordezkaritza handiena duten enpresa erakundeek aukeratzen dituzte.

Mutualitateko Zuzendaritza Batzordeko presidentea izango da Batzorde honetako presidentea ere; hura izan ezean, edota gaixorik edota kanpoan izanez gero, erakundeko Zuzendaritza Batzordeko presidenteordeak izango du zeregin hori. Bere egitekoak eta eskumenak lehen aipatu dugun aplikatzeko araudian daude zehaztuta, eta honako lanak egokituko zaizkio:

- a) Kontrol eta Jarraipen Batzordearen ordezkaritza formala, koordinazio eta kanpo harremanen eraginetarako.
- b) Bilkuren deialdia egitea eta eguneko gai zerrenda finkatzea.
- c) Bilkuretako presidente lanak egitea eta eztabaiden garapena moderatzea.
- d) Boto eskubidea erabiltzea eta, berdinketa kasuetan, bozketa erabakitzea.
- e) Ezohiko saioen deialdia adostea.
- f) Batzordearen akordioen aktak eta ziurtagiriak bisatzea.
- g) Enpresetara eta sindikatueta jotzea, dagozkien ordezkariak izenda ditzaten.
- h) Egoki deritzon hitzarmenen inguruan eskumena duen ministerioari kontu ematea.
- i) Batzordeko presidente den aldetik bere-berezkoak dituen beste zernahi funtzio, betiere, koordinazioaren eta kanpo harremanen esparruaren barruan badaude.

Batzordeko idazkari kargua erakundeko zuzendari kudeatzaileak, kudeatzaileak edota antzeko kargua duen pertsonak beteko du, edota, halakorik ezean, Zuzendaritza Batzordeko presidentek izendatzen duenak, aldez aurretik mutualitateko Kontrol eta Jarraipen Batzordeak adostuta; hori bileretan ahotsarekin baina botorik gabe izango da, kide izaerarik gabe, eta presidentek izendatutako pertsona batek ordezkatu ahal izango du.

Batzorde horretako ordezkariak eta karguak izendatzean, emakumeen eta gizonen **ordezkaritza** orekatuaren printzipioa **beteko** da, **indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera**, eta karguren bat **edo ordezkariaren bat** berritzea egokitzen den unean beteko da.

Ezingo da bertako kide izan erakunderako lan egiten duen edota Zuzendaritza Batzordeko kide den beste edonor. Ezingo dira batzorde horretako kide izan, era berean, Zuzendaritza Batzordea, Kontrol eta Jarraipen Batzordea edota Prestazio Berezien Batzordea osatzen duten enpresak edo pertsonak.

Kontrol eta Jarraipen Batzordeak honako egitekoak ditu:

- a) Mutualitateak bere helburu soziala garatzeko mantendu eta aplikatzen dituen irizpideak ezagutzea.
- b) Urteko memoria proiektuaren, aurrekontuen aurreproiektuaren eta urteko kontuen berri ematea, Batzar Nagusiari aldez aurretik bidalita.
- c) Zuzendari kudeatzailearen izendapen proposamenen berri aldez aurretik izatea.
- d) Erakundearen lankidetzaren modalitateetan egindako kudeaketaren berri izatea eta jakinaraztea.
- e) Lankidetzako modalitate guztien garapena hobetzeko neurriak proposatzea, Gizarte Segurantzaren oinarri eta helburuen barruan.
- f) Oro har, behar beste informazio generiko eskatu ahal izatea erakundeak baimenduta dituen lankidetzaren modalitateetan egindako kudeaketaren inguruan.
- g) Batzordekideak mutuaren alta proposamenen gainean informatzea, erakundearen kargurako aldi baterako ezintasun prozesuen bilakabidea jarraitzeko; erakundearen barruan aukera izango dute xede jakin horretarako lantaldeak sortzeko, osaera parekide berekoak.

- h) Urtero Zuzendaritza Batzordeari eta zuzendaritza eta tutoretza organoari bidaliko zaizkion gomendio sorta osatzea.

Lan hori egiteko, Batzordeak aldian behin eskura izango ditu auzi, erreklamazio eta helegiteei buruzko txostenak, ikuskaritzako eta zuzendaritza eta tutoretzako organoen errekerimenduak, eta haiek betetzearen inguruko informazioa.

Batzordearen saioak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke. Lehenak hiru hilabetetik behin egingo dira eta, bigarrenak, presidenteak egokitzen jotzen dituen edota kideen herenak hala eskatzean.

Ohiko saioetarako deialdiak gutxienez zortzi egun baliodun lehenago jakinarazi beharko dira eta, ezohiko saioetarakoak, hiru egun baliodun lehenago. Deialdietan, batzordearen bilera egunaz, orduaz eta tokiaz gain, gai-zerrenda jasoko da eta, egokia bada, batzordekideek alde aurretik aztertze beharrezko dokumentazioa ipiniko da.

Batzordea aurreneko deialdian eratutzat hartuko da, baldin eta batzordekideen bi heren bildu badira. Bigarren deialdian bilkura baliozkotzat hartuko da bertaratutako batzordekide kopurua zeinahi dela ere.

Batzordeak akordioak onartzeko, nahikoa izango da bildutako kideen gehiengo sinplea. Kide bakoitzaren botoa sekretua eta indibiduala izango da, non eta ez dagoen batzordeko kide guztien arteko adostasuna proposatutako gaiaren gainean.

Aktak idazkariak sinatuko ditu, presidentearen oniritziarekin, eta hurrengo ohiko saioan onartuko dira. Saio bakoitzean, deialdi orriarekin batera, aurreko saioko akta banatuko da.

34. artikulua.- Prestazio Berezien Batzordea.-

1. Prestazio Berezien Batzordeari dagokio mutuak ekitaldi bakoitzeko aurrekontu kredituen kontura ordaindu beharreko gizarte asistentziaren onurak ematea. Horretarako, espediente bat izapidetu beharko du langile bakoitzarentzat edo haren eskubidedunentzat, eta espediente horretan jasota utzi beharko du gizarte asistentzia ematea justifikatzen duen egoera berezi bat edo beharrian egoera bat dagoela.

Gizarte asistentzian sartzen diren zerbitzuak eta laguntza ekonomikoak nahierara ematen dira, bai ematea onartzeari dagokionez, bai zenbatekoari dagokionez, egokitzen jotzen diren beharrian egoerak eta egoera bereziak kontuan hartuta, eta argi eta garbi bereizten dira arauko prestazioetatik.

Artikulu honen ondorioetarako, lan istripu eta gaixotasun profesionalen ondoriozko egoera berezitat eta beharrian egoeratzat hartuko dira honako hauek: urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 42. artikuluan zerrendatutako prestazioen bidez Gizarte Segurantzaren sistemak estaltzen duen soldata errentak galtzera mugatzen ez direnak; hau da, errenta horien galerak berak dakarren egoera larriagotzen duten inguruabar gehigarriak ere badituztenak eta, horren ondorioz, sistemaren babes ekintzan sartzen ez diren gizarte asistentziako neurri osagarriak hartzea eskatzen dutenak.

Onuradunaren egoera berezia edo beharrian egoera kontuan hartuta ordainduko diren gastuen ehunekoa zehaztu ahal izango du mutualitateak. Horretarako, kontuan hartuko dituzte, alde batetik, lan istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz langileak lanerako dituen mugak, eta, bestetik, langileak lan egin ezin duen aldian diru sarrerak murrizteagatik bizikidetzaren unitateak izango dituen ondorioak, edo kontingentzia eragin duen gertaeraren hurrengo urtean, baldin eta langileak lana galdu badu edo lan egiteari utzi behar badio edo jarduera eten behar badu lan istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz, norbere konturako langileen kasuan.

Gizarte Asistentziako Erreserbaren dirua baimendutako gizarte asistentziako prestazioak ordaintzeko erabiliko da, legezko araudian ez ezik, erreserba horiek aplikatzeko araubidea erregelamendu bidez garatzen duen araudian ere aurreikusitakoaren arabera.

2. Mutualiako Prestazio Berezia Batzordeak gehienez ere hamabi (12) kide izango ditu, zati berdinetan banatuta: bost (5) kideetako enpresek enplegatutako langileen ordezkariak izango dira eta erakundearen jardura eremuan ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalek izendatuko dituzte; beste bost (5) kideetako enpresaburuen ordezkariak izango dira eta mutualitateko Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu. Halaber, atxikitako langileek bi (2) ordezkari izango dituzte.

Presidente Batzordeak izendatuko du, batzordekideen artetik. Era berean, presidenteordea eta idazkaria ere aukeratuko dituzte. Gainerako kideak batzordekideak izango dira. Aipatutako karguak bi urtetik behin berrituko dira eta, horretarako, Batzordeko kideen gehiengoak ados egon beharko du; nolahi ere, **presidente-, presidenteorde- eta idazkari-kargurako**, 70 urte baino gutxiago izan beharko dituzte.

Batzorde horretako ordezkariak eta karguak izendatzean, emakumeen eta gizonen **ordezkaritza** orekatuaren printzipioa **beteko** da, **indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera**, eta karguren bat **edo ordezkariaren bat** berritzea egokitzen den unean **beteko** da.

Beste mutualitate bateko Zuzendaritza Batzordea, Kontrol eta Jarraipen Batzordea, Prestazio Berezien Batzordea edota zuzendaritza exekutiboa osatzen duten enpresek edota pertsonak ezin izango dute batzordeko kide izan.

Prestazio Berezien Batzordeko kide titular bakoitzeko, sindikatuek eta Zuzendaritza Batzordeak ordezkari bat izendatuko dute aipatutako kidearen postua libre geratu, hura bertaratu ez edo gaixo dagoenerako. Ordezkapen hori batzordeko idazkaritzari idatziz justifikatu behar zaio, batzordearen saioa hasi baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez. Atxikitako langileen ordezkari diren kideek ere izan beharko dute ordezkaria izendatuta.

Prestazio Berezien Batzordearen bileretara joan ahal izango dira, ahotsarekin batna botorik gabe, Zuzendaritza Batzordearen ustez Prestazio Batzordearen eskumen diren gaiak jorratzeko behar besteko trebakuntza duten pertsonak; haien artean, baldin bada, aurrez Batzordeko presidentek gonbidatuta, egoki deritzon, Batzordeari aholkua eta/edo laguntza tekniko-administratiboa ematen diotenak.

Prestazio Berezien Batzordeko kideek batzordekide izateari utziko diote, honako arrazoi hauek tarteko: heriotzagatik; erakunde sindikalek eta mutualitateko Zuzendaritza Batzordeak hala erabaki edo karguari uko egitea onartu dutelako; langileen ordezkari gisa egon eta mutualitatean kide izateko enpresako langile izateari utzi diolako; edo atxikitako langileen ordezkari den kideak mutualitateari atxikitako langile izateari utzi diolako.

3. Prestazio Berezien Batzordeak, hiru hilean behin, ohiko batzarra egingo du; ezohikoa, berriz, beharrezkotzat jotzen den bezain bestetan. Ezohiko batzarrek presidentek deituko ditu; bestela, kideen herenak eskatuta ere bildu ahal izango da. Deialdia hiru egun baliodun aurretik egin beharko da; premiazko arrazoiak ez baldin badaude, behintzat.

Prestazio Berezien Batzordeak estatutu hauetako 34. eta 35. artikuluetan aurreikusitako asistentzia prestazioak ematea edota ukatzea bakarrik adostuko du, betiere, haietan aurreikusitako finantzaketa mugen barruan. Hala, akordio horiek baliokoak izan daitezten, gutxienez batzordeko kideen erdia gehi batek agertu beharko du batzordera eta, onartzeko, bertaratutako gehiengoak beharko da; berdinketarik baldin bada, presidentearen botoa hartuko da kalitateko bototzat berdinketa hausteko.

Akta liburua eramango dute, jorratutako gaiak eta onartutako akordioak labur-labur bilduko dituenak.

Erabakiei ezingo zaie helegiterik edota erreklamaziorik ipini, ez bide administratiboan, ez jurisdikzioan.

4.- Prestazio Berezien Batzordeak honako gizarte asistentziako laguntza hauek eman diezazkieke kide tutako enpresetako langileei eta atxikitako norberaren konturako langileei, izan duten lan istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz, baita haien eskubidedunei ere:

a) Errehabilitaziokoak eta errekupeziokoak..

- 1º Eguneroko bizitzako oinarritzako jarduerak egiteko zailtasun bereziak dituzten langileek eta baliaezintasun handia dutenek zentro soziosanitario edo egoitza zentro batean iraupen luzeko egonaldia ordaintzeko laguntza, Eguneroko bizitzako oinarritzako jarduerak egiteko zailtasunak eta horrelako zentro batean sartzea egokia dela mutualitateko fakultatiboen txosten mediko baten bitartez egiaztatu beharko dira.
- 2º Langilea ospitale, zentro soziosanitario edo egoitza zentro batera eramateko, bertan egoteko eta bertako dieten gastuak ordaintzeko laguntza, baita langilea zaintzeaz arduratzen den laguntzailearenak ere.
- 3º Protesietarako eta arautu gabeko laguntza teknikoetarako laguntza, horien beharra mutualitateko fakultatiboen txosten baten bitartez egiaztatu bada.
- 4º Mutualitateko medikuek gomendatutako tratamendu mediko edo terapia ez-arautuetarako laguntza.

b) Lanbiderako orientabidea eta lanpostua egokitzea..

- 1º Langilearen lanbide heziketarako eta gizarteratzeko eta laneratzeko ikastaroak ordaintzeko laguntzak, betiere prestakuntza hobetzeko edo langilea gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko ikastaroak baldin badira, lan istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz lana galdu badu; lanbide heziketa jasotzen ari den bitartean bekak jasotzea ere sartzen da.
- 2º Langile autonomoak bere jardura garatzen duen lokala edo lanpostua eta laneko baliabideak lan istripuaren ondoren sortutako beharretara egokitzeko gastuak ordaintzeko laguntzak.

- c) Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko funtsezko baliabideak egokitze laguntza..
- 1º Ohiko etxebizitzan arkitektura oztopoak kentzearen kostua eta ohiko etxebizitza egokitzeak ekar dezakeen kostua ordaintzeko laguntzak.
 - 2º Egokitutako ohiko etxebizitza erosteko laguntza.
 - 3º Lan istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz langilearen egoera fisikora egokitutako ibilgailua erostea edo ibilgailua egokitzea ordaintzeko laguntza.
 - 4º Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko etxez etxeko laguntza ematea, baldin eta bizikidetza unitateko senideren batek edo izatezko bikotekideak ezin badu etxeko laguntza eman.
 - 5º Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eskuratzeko laguntza, baldin eta langileak, laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz, zentzumenetako edo mugikortasuneko muga handiak baditu eta hala egiaztatzen bada mutualitateko medikuek emandako txostenaren bitartez.
- d) Beste prestazio batzuk.
- 1º Lan istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondorioz langile bat hiltzen denean, langile horren ehorzketa gastuak bere gain hartu dituen eskubidedunari Gizarte Segurantzak aitortutako heriotzagatiko sorospenaren osagarria ordaintzea.
 - 2º Lan istripu edo gaixotasun profesional baten ondorioz baliaezintasun handia duten pertsonak zaintzeko prestakuntzarako laguntza, zaintza hori emateaz arduratzen diren onuradunentzat.
 - 3º Ordainketa bakarreko laguntza, ohiko etxebizitzaren hipoteka kredituen amortizazioa edo alokairua ordaintzeko, lan istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz lanik gabe geratuz gero edo antzeko kalteberatasun egoera batean geratuz gero, betiere egoera hori eragin duen gertaera izan eta hurrengo urtean.

- 5.- Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzen diren mutualitateen tutoretza dagokion ministerioaren titularraren agindu bidez, erakunde horiek eskaera arrazoitua eginez gero, baimendutako gizarte asistentziako prestazioen katalogoa handitu ahal izango da, eta prestazio berriak Lankidetzaren Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuaren eranskin gisa sartu beharko dira.

36. artikulua.- Lurralde batzordeak

Mutualitatearen Zuzendaritza Batzordeari aholkularitza eta laguntza emateko organoak dira, baita enpresaburu kideetuek erakundearen ezarpen handieneko lurralde eremuetan parte hartzeko ere.

Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du mutualitatean zenbat lurralde zuzendaritza osatu ahal izango diren, aurreko atalean aipatutako lurralde ezarpenaren arabera.

Lurralde batzordeek honako egiteko hauek izango dituzte:

- a) Zuzendaritza Batzordeari aholkularitza eta laguntza eskaintzea, gai bereziak direla-eta, laguntza eskatzen badiote.
- b) Erabakitzeke ahalmenik ez izanagatik ere, mutualitatearen plangintza estrategikoan laguntzea.
- c) Erakundearen garapenaren eta eboluzioaren inguruko informazioa jasotzea.
- d) Mutualitatearen jardura esparruan, haren irudia eta jarduna sustatzea.
- e) Kidetutako enpresaburuek erakundearen martxan parte hartzea.

Lurralde batzorde bakoitzak gutxienez bost kide izango ditu eta, gehienez, hogeit hamar; guztiak ere Zuzendaritza Batzordeak izendatutako ditu, bilerara joandako kideen gehiengoz, kidetutako enpresen artetik. Karguan lau urte eman ahal izango dira eta, berritzekotan, partzialki berrituko da, agintea amaitu ostean berriro kide edo kargu gisa aukeratua izan ahal da, **presidente eta idazkari kargurako** betiere 70 urte baino gutxiago baditu, baldin eta dagokionak edota Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen badu.

Lurralde batzorde bakoitzak bere presidentea eta idazkaria aukeratuko ditu, baina lurralde batzordeko presidente izateko, mutualitateko Zuzendaritza Batzordeko kide izan beharko da lehendik. Lurralde batzorde bakoitza **urtean behin bilduko da normalean, eta ezohiko moduan presidentearen proposamenez, beharrezko deritzon aldiro**; bilerak egoki iritzitako lekuan egin ditzake, bere lurraldearen barruan. Bilera horietara joango da lurralde-eremu bakoitzean ardura duen erakundeko kidea. Era berean, Zuzendaritza Batzordeko kideak ere joan ahal izango dira, presidenteak hala eskatzen badu.

Lurralde Batzordeko presidentearen lana mutualitatearen Zuzendaritza Batzordearekin zuzenean hitz egitea eta bilerak deitzea izango da.

Idazkariari dagokio ~~Batzordearen deialdiak sinatzea~~ bileren aktak eta haietan hartutako erabakiak idaztea, ~~bileran bertan erabakitzen bada akta egitea~~.

Batzordeko gainerako kideak batzordekideak izango dira.

Ordezkariek eta karguak izendatzean, emakumeen eta gizonen **ordezkaritza** orekatuaren printzipioa beteko da, **indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera**, eta karguren bat **edo ordezkariaren bat** berritzea egokitzen den unean beteko da.

44. artikulua.- Nahitaezko horniketa eta erreserba

Helburuak eta obligazioak beteko dituela bermatzeko, fidantzaz gain, mutualitateak honako horniketa eta erreserbak derrigor sortu beharko ditu, ekitaldi bakoitzaren amaieran, GSLOan, Lankidetzarako Erregelamenduan ezarritako arauei eta aplikatu beharreko gainerako arauei jarraiki: izapidetze kontingentzietarako horniketa eta Kontingentzia Profesionalen Egonkortze Erreserba.

Kontingentzia profesionalen kudeaketaren esparruan, izapidetzen ari diren kontingentzietarako hornidura bat sortuko da. Hor sartuko da ezintasun iraunkorragatik eta laneko istripuek eta gaixotasun profesionalek eragindakohieriotzagatiketabiziraupenagatikaurreikusitakoaldizkakoprestazioenzenbatekozenbatetsiaren berraseguratu gabeko zatia, horien aintzatesteke badaude ekitaldia ixtean.

Kontingentzia profesionalen kudeaketaren esparruan, egonkortze-erreserba bat sortuko da, urtero lortzen den emaitza ekonomiko positiboarekin hornituko dena. Horren helburua ekitaldi bakoitzean esparru bakoitzean sortzen diren emaitza ekonomikoen arteko desberdintasunak zuzentzea izango da.

Kontingentzia Profesionalen Egonkortze Erreserbaren zenbatekoa, gutxienez, honako hauen urteko batez bestekoaren ehuneko ~~30~~ 20 izango da: laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen kontingentzia eta prestazioengatik azken hirurtekoan sartutako kuoten, haurdunaldiko edo edoskitze naturaleko arriskuagatiko prestazio ekonomikoaren, minbiziak edo beste gaixotasun larri batek eragindako adingabeak zaintzeko laguntzaren eta Gizarte Segurantzaren prebentzio-jardueren urteko batez bestekoa. Hori, nahi izanez gero, ehuneko ~~45-30~~ era igo ahalko da, eta hori izango da erreserbaren gehieneko hornidura.

Kontingentzia profesionalen kudeaketaren esparruan lortutako emaitza negatiboak ezeztatu egingo dira, Egonkortze Erreserbaren ikuspegia aplikatuz. Hori gutxienerako estaldura-mailaren azpitik badago, aipatu mailara arte berrezarriko da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 96.1.b) artikuluan aurreikusitako erreserba osagarriaren kontura.

Aurreko paragrafoan ezarritako eragiketak egin ondoren, kontingentzia profesionalen kudeaketaren arloan defizitak bere horretan jarraitzen badu, edo Egonkortze Erreserba Espezifikoaren zuzkidura nahitaezko gutxienekoa baino txikiagoa bada, defizita ezeztatzeari eta Erreserba nahitaezko gutxieneko maila horretara arte hornitzeari Kontingentzia Arrunten Egonkortze Erreserbaren borondatezko zuzkiduraren tarte aplikatuko zaio, eta, nahikoa ez bada, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 100. artikuluan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

~~Jarduera uzteagatiko prestazioen kudeaketaren emaitza negatiboa mutualitateetan eratutako erreserba espezifikoa aplikatuz ezeztatuko da, eta, nahikoa ez bada, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian jarduera uzteagatiko Egonkortasun Erreserba Osagarria aplikatuko da, defizita iraungi arte eta erreserba horren gutxieneko zuzkidura-mailara arte, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.~~

47. artikulua.- Nahitaezko erreserba eta emaitzen konpentsazioa

Kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren kudeaketaren esparruan, Egonkortze Erreserba bat sortuko da, eta urtero lortutako emaitza ekonomiko positiboarekin hornituko da hori. Erreserba horren helburua ekitaldi bakoitzean esparru bakoitzean sortutako emaitza ekonomikoetan egon daitezkeen desberdintasunak zuzentzea izango da.

Kontingentzia Arrunten Egonkortze Erreserbaren gutxieneko zenbatekoa ekitaldi ekonomikoan kontingentzia horiengatik sartutako kuoten % 5 izango da. Kopuru hori borondatez areagotu ahal izango da, gehienez ere % ~~25-20~~ raino, eta hori izango da estalduraren gehieneko maila.

Kontingentzia arruntetik eratorritako aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren kudeaketaren esparruan lortutako emaitza negatiboak ezeztatu egingo dira, dagokion Egonkortze Erreserba aplikatuta. Hori gutxieneko estaldura-mailaren azpitik badago, aipatutako mailaraino berrezarriko da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 96.1.b) artikuluan aurreikusitako erreserba osagarriaren kontura.

Kontingentzia arruntetik eratorritako aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren kudeaketaren esparruari dagokionez, aurreko paragrafoan aurreikusten den Erreserba Osagarria aplikatu ondoren ere defizitak bere horretan jarraitzen badu edo Erreserba Espezifikoaren zuzkidura derrigorrezko gutxieneko maila baino zenbateko txikiagoa bada, defizit-ezeztapenari aplikatuko zaio, baita esparru horretako Egonkortze Erreserba espezifikoa zuzkitzeari ere, gutxieneko estaldura-mailan egon arte Kontingentzia Profesionalen Egonkortze Erreserba. Behin azken erreserba hori aplikatu ondoren, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 100.1.a) artikuluan aurreikusitako mailetan badago, artikulua honetan ezarritako neurriak izango dira aplikagarriak.

Era berean, kudeaketa horren erreserba bere zenbateko handiengan zuzkituta dagoenean, kudeaketa horretatik eratortzen den soberakina Gizarte Segurantzaren Erretserba Funtsean sartuko da, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian ingresatu beharko da ekitaldi bakoitzeko uztailearen 31ra artean.

54. artikulua.- Emaidza ekonomikoa, erreserbak eta soberakinak

Kudeaketa horren ondare-emaizta ekonomikoa diru-sarreraren eta kudeatze arlo horretan gastu egozgarrien arteko aldeak erabakiko du urtero, horretan mutualitateak erakunde kudeatzaile gisa soilik jokatzeari kalterik eragin gabe.

Prestazio horien kudeaketan, erreserbak honako hauek dira:

- a) Jarduera bukatzeagatiko egonkortze erreserba: nahitaezkoa izango da, eta urtero eskuratutako emaitza ekonomiko positiboarekin hornituko da. Haren helburua ekitaldi desberdinen artean sortutako emaitza ekonomikoen baitan izan daitezkeen desorekak zuzentzea izango da. Erreserbak ekitaldian zehar kontingentzia horregatik bildutako kuoten % 5arekiko baliokidea den gutxieneko zenbatekoa edo maila izango du, eta norbere borondatez handitu ahal izango da, kuota horien % ~~25~~20ra iritsi arte; hori izango da babes-maila handiena.
- a) Jarduera bukatzeagatiko egonkortasun erreserba osagarria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian eratua babes-sistema horren finantza nahikotasuna bermatzeko eta kudeaketa esparru horretan mutualitateek sor ditzaketen defizitak likidatzea. Hango kopurua Jarduera bukatzeagatiko egonkortze erreserbara bideratutako zenbatekoaren eta mutualitate bakoitzaren emaitza garbi positibo osoaren arteko desberdintasunarekin etorriko da bat.

Kudeaketa horren emaitza negatiboa Jarduera bukatzeagatiko egonkortze erreserba aplikatuta ezeztatuko da, eta nahikoa izan ezean, Jarduera bukatzeagatik sortutako egonkortze erreserba osagarria aplikatuko da defizita desegin eta erreserba hura gutxieneko hornitze mailaraino hornitu arte, GSLOko 95. eta 96. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta arauz finkatutako mugen barruan.

Mutualitateak Jarduera bukatzeagatiko egonkortze erreserba urtero zuzkitu ostean geratzen den kudeaketa esparru horren emaitza positiboa da soberakina, eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusian sartuko da, aurreko b) ataleko erreserba zuzkitzeko, eta mutualitate bakoitzeko Jarduera bukatzeagatik sortutako egonkortze erreserba nahitaezko maila gutxienekoan eta GSLOko 96. eta 97. artikuluetan zehaztutako beste batzuetan berritzeko.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Donostian onartu dira 2023ko uztailaren 14an, Mutualia Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen 2 zenbakiko mutualitateak egindako Ezohiko Batzar Orokorrean; Ministerio eskudunak onesten dituen egunean jarriko dira indarrean.

Bilbon, 2023ko apirilaren 24an

IGNACIO LEKUNBERRI HORMAETXEA
Zuzendari kudeatzailea